



2026ko 61. BEHOBIA - SAN SEBASTIÁN

DESGAITASUNA DUTEN ATLETENTZAKO ARAUDIA

1.- Arau orokorrak eta izen-emateari buruzkoak

- Lasterketa Behobiatik abiatu eta Donostiara heltzen da, eta gutxi gorabehera 20 kilometroko ibilbidea du.
- Atletek, izen-ematearekin batera, desgaitasun-ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, desgaitasuna duen atleta dela egiaztatzeko. Hoteleko idazkaritzan edo dortsalak jasotzerakoan, jatorrizko dokumentua aurkeztu beharko dute. Dokumentu hau EZ aurkeztea deskalifikatzeko arrazoia izango da.
- Dorsalen banaketa: Korrikalariaren azokan edo Irungo Urdanibia Park hotelean. Larunbatean, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.
- Antolakuntzak ostatuaren gastua soilik bere gain hartuko du mugikortasun murriztua duten desgaitasuna duten atleten kasuan, gurpil-aulkiko eta handbike kategoriatan parte hartzen dutenentzat (*), larunbatetik igandeko goizera arte, ostatu eta gosari erregimenean. Jatorrizko lekutik hotelera 700 kilometrotik gorako distantzia dutela egiaztatzen duten atletek gau bat gehiago luzatu ahal izango dute.
 - (*) Laguntza-behar handiagoak dituzten kirolariak dira, irteerara iristeko beren lasterketa-gurpilaulkiarekin edo handbikearekin, eta azpiegitura handiagoa behar dute. Lasterketa honen ezaugarriak direla eta (hiri batean hasten da eta beste batean amaitzen da), gurpil-aulkian edo handbikean doazen pertsonak arazo gehigarria dute: irteeran beren gurpilaulkia edo handbikea izatea eta helmugan beren gurpilaulki pertsonala edukitzea. KEMENek autobusak eta kamioiak jartzen ditu arazo hori konpontzeko.



2.- Kategoriak

Parte hartu nahi duten desgaitasuna duten atletek ondorengo kategoria hauetakoren batean eman beharko dute izena:

2.1.- Gurpil-aulkietako atleten lasterketak (emakumezkoak eta gizonezkoak)

- **T51:** Ahultasun arina sorbaldan. Ukalondoak normal oker ditzake, baina ahalmen mugatua du beraiek luzatzeko. Eskumuturrak atzerantz oker ditzake, baina ez aurrerantz. Hatzetan ez dago mugimendurik. Gorputz-enborrak edo zangoek ez dute lanik egiten.
- **T52:** Sorbaldek, ukalondoek eta eskumuturrek ondo lan egiten dute. Mugimendu mugatuak ditu hatzetan. Gorputz-enborrak edo zangoek ez dute lanik egiten.
- **T53:** Besoek eta eskuek normal lan egiten dute. Gorputz-enborrak ez du lanik egiten edo lan mugatua egin ohi du. Zangoek ez dute lanik egiten.
- **T54:** Besoek eta eskuek normal lan egiten dute. Gorputz-enborraren ahalmena mugatua eta normala artean ibili ohi da. Ahalmenen bat izan dezake zangoetan.

2.2.- Mugimendu ezintasuna dutenak (emakumezkoak eta gizonezkoak)

- **1. TALDEA**
 - **T42:** Belaunetik gorako anputazio bakarra.
 - **T43:** Belaunetik beherako anputazio bikoitza.
 - **T44:** Belaunetik beherako anputazio bakarra.
- **2. TALDEA**
 - **T45:** Ukalondotik gorako anputazio bikoitza.
 - **T46:** Ukalondotik gorako anputazio bakarra.



2.3.- Elbarritasun zerebrala duten atletak

- **T35 - CP5 atletak:** Atletak oreka estatiko normala du, baina oreka dinamikoan arazoak izan ohi ditu. Grabitate-zentruaren desbideraketa txiki batek oreka galtzea eragin dezake. Atletak tresnaren baten laguntza behar izan dezake oinez ibiltzeko, baina ez da nahitaezkoa geldirik dagoenean edo (atletismoko probetan) tiraka ari denean. Atletak behar adina ahalmen izan dezake pistan korrika egiteko.
- **T36 - CP6 atletak:** Atletak ez du geldirik egoteko ahalmenik; oharkabeko mugimendu ziklikoak izan ohi ditu eta gehienetan lau soin atalei eragiten diete. Atletak laguntzarik gabe oinez ibiltzeko ahalmena du. Normalean kontrol-arazo gehiago dituzte besoetan, eta zangoek CP5 atletei baino hobeto lan egiten diete, batez ere lasterka ari direnean.
- **T37 - CP7 atletak:** Atletak gihar-espasmo kontrolaezinak izan ohi ditu bere gorputzaren erdian. Gaitasun onak ditu menderatzen duen gorputz-zatian. Laguntzarik gabe ibiltzen da oinez, baina zangoetako gihar-espasmo kontrolaezinak direla eta sarritan erren egiten du. Lasterka ari direnean, errena ia-ia erabat desager daiteke. Menderatzen duen zatiak garapen hobe eta jarraipen-mugimendu onak izaten ditu oinez ibili eta korrika egiterakoan. Besoaren eta eskuaren kontrolezintasunak menderatzen ez duen zatian bakarrik erasaten dio; menderatzen duen zatian mugimenduen kontrol ona izaten du.
- **T38 - CP8 atletak:** Atletak espasmo kontrolaezin txikiak izan ohi ditu beso batean, zango batean edo gorputzaren erdian. Hautagarriak izateko, atleta hauek elbarritasun zerebrala edo aurrera egiten ez duen garuneko beste gaitzen bat jasaten duten diagnostikoa izan behar dute.



2.4.- Ikusmen urrikoak (emakumezkoak eta gizonezkoak)

- **T11 - B1 atletak:** Kategoria honetako atletak ez du inolako ikusmenik izango bere bi begietan, edo ikusmen apur bat izan dezake, baina edozein lekutik edo edozein norabidean esku baten itxura ezagutzeko ahalmenik gabe.
- **T12 - B2 atletak:** Atletak esku baten itxura ezagut dezake eta gehienez *2/60 arte (pertsona batek bi metrora ikus dezake, normalean 60 metrora ikus daitekeena) argi eta garbi ikusteko ahalmena du. Atletaren ikus-eremua bost gradukoa baino txikiagoa da.
- **T13 - B3 atletak:** Atletak esku baten itxura ezagut dezake, eta argi eta garbi ikusteko ahalmena 2/60etik gorakoa, eta 6/60 artekoa, izango da. Atletaren ikus-eremua gutxienez bost gradukoa eta gehienez 20 gradukoa izan ohi da.

2.5.- Handbikes (emakumezkoak eta gizonezkoak)

2.6.- Patinatzaileak (emakumezkoak eta gizonezkoak)

2.7.- Pertsona Gorrak (emakumezkoak eta gizonezkoak)

Entzumen-maila egiaztatzeko audiometria aurkeztu beharko dute.



3.- Ezaugarri Teknikoak

3.1.- Orokorrak

- Kategoriak kontuan hartuko badira, gutxienez sei atleta beharko dira kategoria berekoak, emakumezkoetan zein gizonezkoetan. Kategoriaren batean ezarritako gutxienerako kopururik ez balego, atleta horiek goragoko hurrengo kategoriako zerrendan sartuko lirateke.
- Antolakuntzak eskubidea izango du atleta ezinduen jantzetan eta gorpil-aulkietan lasterketa babesten edo laguntzen duen publizitatea jartzeko.
- Atleta ezindu guztiek antolatzaileek emandako agindu guztiak zorrotz bete beharko dituzte, lasterketa behar bezala burutu dadin.
- Lehiakideek lasterketa bertan behera utzi beharko dute, identifikazio-txartela edo besoko ezaugarria duen mediku-talde ofizialeko kide batek hala aginduz gero.
- Batzorde antolatzaile batek ebatziko ditu erreklamazio guztiak eta ebazpenak apelaezinak izango dira. Erreklamazio guztiak idatziz egin beharko dira hoteleko idazkaritzan lasterketa eguneko 14:00en aurretik, eta, erreklamazioarekin batera, 30 €ko diru ezarpena egin beharko da. Erreklamazioak aurrera eginez gero, diru-kopuru hori erreklamatzailerari itzuliko zaio.

3.2.- Gorpil-aulkietako atleten lasterketa

- Gorpil-aulkiek, 2 gorpil handi eta gorpil txiki bat izan beharko dituzte gutxienez.
- Atletismorako diseinatuak izan ez diren paseatzeko aulkiak ezin erabili ahal izango dira lehiaketarako.
- Gorpil-aulkietan ezin izango da inolako gailurik erantsi bere ahalmen aerodinamikoa gehitzeko.



- Gurpil handiaren gehieneko diametroa, gurpil puztua kontuan harturik, 70 cm.koa izan beharko du. Gurpil txikiaren gehieneko diametroa, gurpil puztua barne, 50 cm.koa izan beharko du.
- Ez da onartuko aulkiari abiada emateko erabil daitezkeen palanka edo tresna mekanikorik.
- Aulkiaren zatiak ezin izango dira atzeko gurpilen atzealdeko plano bertikala baino atzerago atera.
- Eskuz gidatzeko gailu mekaniko bat bakarrik onartuko da. Atletak gai izan beharko du aulkia eskuz, aurrerantz, eskuinera eta ezkerrera gidatzeko.
- Atletak ziur egon beharko dute lasterketa garaian beren beheko soin atalek ez dutela lurzorua edo pista ukituko.
- Lehiakidearen erantzukizuna izango da gurpil-aulkia goian aipaturiko arauen arabera egotea eta aulkian egokitze-lanak egiten dituen bitartean lasterketa ez atzeratzea.
- Gurpil-aulki guztiek baimendutako eta ohiko neurri teknikoak izango dituzte. Abiadan eta lastertasunean eragina duten berrikuntza oro batzorde antolatzaileak aztertu eta baimendu beharko ditu. Aulkiak eremu ofizialean neurtuko dira eta lasterketa hasi baino lehen ezin izango dira handik atera baimenik gabe. Aulkien azterketaz arduratzen den epaileak, lehendik aztertuak izan diren aulkiak berriro aztertzeko agindua eman dezake lasterketa aurretik edo ondoren.
- Lehen-lehenik lasterketako epailearen erantzukizuna izango da gurpil-aulkiek lasterketako segurtasun-arauak betetzea.
- Gurpil-aulkietan doazen atletak oinez doazenak baino 30 minutu lehenago abiatuko dira.
- Oinezko atletek Gaintxurizketako gaina (8. kilometroan) baino lehenago harrapatzen dituzten gurpil-aulkietako atletek lasterketa utzi egin beharko dute.



- Gurrpil-aulkietan doazen atleta guztiek kaskoa eraman beharko dute, nahitaez, lasterketa guztian eta abiatu aurretiko berotze-ariketetan.
- Lehiakideak gurpilei edo bultzatzeko uztaietara eragitea ez den moduren baten bitartez higitzea, lasterketatik kanporatzea ekarriko luke.
- Lasterketa garaian teknikari baimenduek bakarrik eman ahal izango dute gurpil-aulkiak konpontzeko laguntza mekanikoa.
- Lasterketak dituen zailtasun orografikoak kontuan harturik, maratoni erdian ordu eta erdi baino gutxiagoko denbora egiaztaturik ez duten atletei lasterketan parte ez hartzeko gomendatzen zaie.

3.3.- Handbike lasterketa

- Handbikeko Behobia-Donostia lasterketa proba **LEHIAKORRA** eta sustapenekoa da. 18 urtez azpiko parte-hartzaileek aitaren, amaren edo tutorearen baimena eta sinadura ekarri beharko dituzte.
- Nahitaezkoa da, medikuaren aginduz besterik xedatzen ez bada, **Kasko Babesgarri HOMOLOGATUA** erabiltzea. **Lasterketatik kanpo geratuko da baldintza hori betetzen ez duen guztia.**
- Antolakuntza ez da norberari edo hirugarren pertsonetara egiten zaien kalteen erantzule egingo, Antolakuntzak, boluntarioek edota araudiak emandako jarraibideak betetzen ez diren kasuan.
- Antolakuntza ez da erantzule egingo, jarduera GUZTIAN zehar, bizikleta, osagarri edota beste edozein materialetan gerta daitezkeen kalteez.
- Parte-hartzaile bakoitzak gidarietara, boluntarioek eta Antolakuntzak hartutako erabakiak errespetatu beharko ditu, kasurik egin ezean, lasterketatik kanpo



geratuko da une horretantxe.

- Parte-hartzaile guztiek ordezeko ganbera, bidoi bat ur eta puzgailu bateragarria eraman beharko ditu.
- Mota honetako lasterketa batean parte hartzeko baldintza fisiko eta psikiko egokietan egon beharko dute parte-hartzaileek, hala ez balitz, Antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen.
- Oso gomendagarria da bizikletari azterketa bat egitea probari ekin aurretik.
- Parte-hartzaile guztiek, izen emate hutsagatik, arau hauek onartzen eta betetzen dituzte. Egoerak hala aholkatzen badu, Antolakuntzak egoki irizten dituen aldaketak egin ahal izango ditu, aurrez abisatu gabe.

3.4.- Ikusmen urriko atleten lasterketa

- B1 kategoriako atletek, edozein unetan lasterketako epaileak aztertze moduan egon beharko duten betaurreko ilun homologatuak edo haien ordezeko egokiak eraman beharko dituzte lasterketa garaian. Lehian ari ez direnean, kirolariak betaurreko ilunak edo hauen ordezekoak erantzi ahal izango dituzte.
- B1, B2 eta B3 kategorietako atleta guztiek gidari bana eraman beharko dute, nahitaez. Gidaria antolakuntzak ematen dion kolore distiratsuko peto batek identifikatuko du. Ikusmen urriko atletaren batek gidaririk ez badu, antolakuntzak ez dio proban parte hartzen utziko, segurtasun arrazoiengatik, eta ostatu gastuak ordaindu beharko ditu.
- Ikusmen urriko korrikalariak helmuga zeharkatzen duenean, gidaria haren atzean egon beharko du.



- Gidaria izateko modua atletak aukeratu ahal izango du. Atletak, gidariak ukalondotik helduta edo lokarri baten bitartez gidatzea, edo inolako loturarik gabe korrika egitea aukeren artean aukeratu ahal izango du. Ez dago onartua atleta sustengatzea, atletaren jantzietatik heltzea edo atletaren eskuak gidariarenekin lotzea. Lokarriak 5 cm.ko tartea utzi beharko du gutxienez atletaren eta gidariaren eskuen artean. Korrikalariak gidariaren ahozko aginduak ere jaso ahal izango ditu.
- Gidariek ezin izango dute bizikletarik edo bestelako garraiobide mekanikorik erabili.
- Gidariak ez dio atletari inolako tiraldi edo bultzadarik eman ahal izango. Arau hau haustea atleta lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- Lokarria erabili edo ez, atletaren eta gidariaren artean ezin izango da inoiz 0,50 metro baino tarte handiagorik izan.

4.- Sariak

Sariak eta garaikurrak antolakuntzak erabakiko ditu ekitaldi bakoitzean, bere irizpideen arabera. Ez dira diru saririk egongo.

5.- Azken oharra

- CLUB DEPORTIVO FORTUNA antolatzaile bezala eta KEMENek, ez du inolako erantzukizunik hartzen lehiakideren bati, beronen materialari edo beste pertsonaren bati gerta liezaiokeen kalte material edo pertsonalengatik. Lehiakideek eta beren laguntzaileek galdutako material edo gauzen erantzukizunik ere ez du bere gain hartzen.



- CLUB DEPORTIVO FORTUNA antolatzaile bezala eta KEMENek beretzat gordetzen du desgaitasuna duten atletentzako Behobia-Donostia lasteketaren antolakuntza aldatzeko eskubidea, baldin eta horrek nolabaiteko onura ekartzen badu lasterketarentzat.
- CLUB DEPORTIVO FORTUNA antolatzaile bezala eta KEMENek beretzat gordetzen du arau hauek eta lasterketan erabili beharreko arautegia interpretatzeko ahalmena.